

# EUGASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Arabarrak Everestera

**EUSEBIO OSA, ADIORIK EZ!**

**UKIPEN LENTEAK**

**ZURETZAKO PREST**

Urtebeteko garantiarekin  
ordezkapenak % 50 etan



**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO

Andre Maria Plaza - Olagibel, 33  
(anbulategi aurrean)  
GASTEIZ

1.993-1.994 iKASTURTERAKO  
**AURREMATRIKULAZIOA**

# ARANTZABELA IKASTOLA

- EREDUA: - Murgiltze eredia haur erdaldunentzat  
- Eredua egokitua haur euskaldunentzat
- ADINA: - 3 urtetik aurrera
- JANTOKIA: - Aukeran

**EPEA:**


Martxoaren  
15era arte

**INFORMAZIOA:**

ARANTZABELA  
ikastola.  
Joakin Collar z/g  
Tfnoa: 28 60 63



**ARANTZABELA**  
Gasteiz



Euskara gure kulturaren oinarria da.  
Horrexegatik egunez egun aurrera  
goaz euskara arabar guztion  
hizkuntza izan dadin.



DIPUTACION  
FORAL DE ALAVA

ARABAKO  
FORU ALDUNDIA

DPTO. DE PRESIDENCIA

LEHENDAKARITZA SAILA

**GEU**  
 Gasteiz

 Gasteizko Euskaldunon  
 Aldizkaria

**1691 Postakutxa**  
**GASTEIZ**
**Zuzendaria**

Joseba Gorostiza

**Erredakzio-batzordea**

Iñigo Barruso

Xabier Etxaniz

Mikel Garmendia

Txema Millan

Patxi Salaberri

**Kazetariak**

Leire Lopez de Aberasturi

Inaxio Lopez de Arana

Ismael Diaz de Mendivil

**Publizitatea**

Martin Rezola

**Maketazioa**

Blanka Agiriano

Alex Badillo

**Argazkilariak**

Lukas Etxeberria

Joseba Olalde

Joseba Unzu

**Kolabolaritzaileak**

Agurne Aizpitarte

Asier Garro

Txipi Ormaetxea

**EUSKARA -GASTEIZ.**
**Geroa Elkarrekin Lantzen**

taldearen babesarekin

5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua

VI-582/92

**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain

hartzen betan adierazitako

erantzunkizunik

## Emakumeak errudun

Dagoeneko bi emakume -Zoe Baird eta Kimba Wood- bota ditu atzera Bill Clinton-ek EE.BB. etako Fiskal Nagusi izateko. Arrazoiak? Emakume horiek lege kanpoko inmigranteak kontratatu zituztela etxeko lanetan aritzeko. Orain, antza denez, gizon baten bila dabil Bill Clinton. Ez gizonak hobeto betetzen dituztelako legeak, ez, gizonak ez dutelako neskamerik kontratatzen.

Ondo iruditzen zait legea hautsi duen bat ez jartzea legezaintzaile: baina atzean beste zerbaite dagoela susmatzen dut.

Legearen ikuspegitik desberdinak dira Zoe Baird eta Kimba Wood-en kasuak. Lehenak lege kanpo kontratatu zituen bi pertsona etxeko lanetarako: horrela, zergarik ez ordaintzeaz gain, legearen kontra aritu zelarrik. Bigarrenak, aldiz, legea indarrean jarri aurretik egin zion kontratua neskameari eta, legea ezartzerakoan, arazoa konponduta zegoen: ez zuen, beraz, legerik hautsi.

Demagun, hala ere, errudunak direla biak: demagun bidezkoa dela EE.BB. etako Presidenteak erabakitakoa. Gauzak horrela, galdera bat datorkit burura; aipatutako emakumeak gizonak izan balira, berdin jokatuko ote zuen Presidenteak.

Ez dugu Ron Brown-en hitzak entzutea besterik gauzak zertan dauden konturatzeko. Merkatalgo idazkariak telebistan adierazi zuenez, orain dela bi hilabete gaur egun daukan kargua proposatu ziotenean, berari ez zioten horrelako galderarik egin, eta berak ere garai hartan lege kanpoko neskame bat zeukan etxean. Diskriminazio kasu garbi baten aurrean gaude, beraz.

EE.BB. etan gertaturikoak, bestalde, aukera ematen dit gure artean ere sarritan komentatzen dena aztertzeke. Askotan ohitura dugu emakumeei botatzeko neskameekin gertatzen den guztiaren errua, eta hor tranpa bat dago; neskamea kontratatzen duena, aginduak ematen dizkiona edota kalera botatzen duena emakumea bada ere, horrek ez du esan nahi erantzunkizun hori berea bakarrik denik. Gizonak halakoetan parte hartzen ez badute, berek jakingo dute zergatik, baina, bai onerako eta baita txarrerako ere, etxean gertatzen dena bien kontua da; erantzunkizunak, beraz, biena izan beharko luke.

**Begoña Muruaga.**

(Clinton, emakume bat aukeratu berri du, halere, ordurako artikulu hau idatzita zegoen)

Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi badezu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara

**GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT**

IZENA: .....

DEITURAK: .....

KALEA: ..... Zenb.: ..... Pisua: .....

Kode postala: .....

HERRIA: .....



**Postariak ekarriak**

Kaixo lagunak

Lehendabizi aldizkari euskaldun hau primerakoa dela esan nahi nuke.

Nik Ainhoa dut izena, gasteiztarra naiz eta hamasei urte ditut. A! Eta panderoa jotzen ikasten ari naiz (nahiko zaila da).

Euskalduna kontsideratzen naiz eta ahal dudan gehienetan, Euskaraz, gure hizkuntzan hitzegiten saiatzen naiz. Hala ere zerbait argi utzi nahi nuke: ez zait batere egokia iruditzen jendeak bere janzkera edo itxuragatik inor epaitzea. Zure Euskaldun pentsakera ez duzu zergatik janzkera motan isladatu behar, baizik eta Euskaraz, gure hizkuntzan, mintzatzen; niri ez dit balio "martinak" edo "jertse abertzalea" eramateak Euskalduna edo Abertzalea naizela esateko, zeren eta Euskara bihotzean eta erdera ezpainetan eramanik ez baita benetako Euskalduna.

Honako hau Abertzale edo beste edonorentzat galdetzen dut, zergatik gehienok (eta ez guztiok) beste pertsonak janzkera motagatik epaitzen ditugu eta ez direnagatik.

Egia esan guzti hau lamentagarria iruditzen zait.

Azken finean harro nago, Gasteizen Euskara aurrera aterako duen jendea badagoela dakidalako.

Besterik gabe, agur bero bat,

*Ainhoa Peciña*

**OHARRA**

"Postariak ekarriak" atal honetan, zuen berri jakin nahi dugu. Idatziguzu nahi duzuna kontatuz. Espozioa izango da jarriko dizugun muga bakarra. Eskutitzak gehien jota 20 lerrokoak izan behar dira eta bertan zure izena, abizenak eta nahi izanez gero zure lanbidea jar itzazu.

**GASTEIZTAR EUSKALTZALEA**

Agian nire gurasoek, ume mukitsua nintzela, beraiek ezagutzen ez zuten hizkuntza ikastera ikastolara eraman nindutelako, agian gaztetan inguru euskaldun batetan murgiltzeko aukera egin nuelako, edota agian gaur egun ere nire bizitza mundu horretan kokatzen delako, euskara dut maite.

Aurrekoa irakurri eta baten batek pentsa lezake, jarraian, bere bizitzaren amaieratik gertu dagoen euskaltzale zahar baten memoriak irakurri ahal izango dituela, horrelakoetan topatzen baitira, batez ere, era horretako sarrerak. Inor horren esperoan balego, barkatu, baina 27 urtetako gaztea izanik, egoera, noski, arras ezberdina da.

Zertara, beraz, hasierako aitormen sakon hori? Zahartzen hasia, ala? Edo, are okerrago, beste norbaiti entzun eta benetan sentitzen ez dena errepikatzen? Nahiago hauetako bat egia balitz! Baina, zoritxarrez, azken bolada honetan Gasteizko euskaldunok maiz jo behar izan dugu hausnarketa sakonaren bila, kolokan dagoena oinarri finko eta sendoetan sostengatu nahian.

Gauzak honela, onartu behar zaie egunetik egunera euskararen aurka zaunka ari diren azaluts horiei behin behineko garaipena, garaipen txikia bada ere, argudio eskasak bezain ahulak erabilia gu urduri jartzeagatik. Halere, Euskal herriko ondare kulturalaren etsai horiek, hainbestetan adostasunaren izenean eta guztiontzat onena izan daitekeena defendatuz azaldu diren horiek, jakin beharko lukete urduritasun horren ondorioa lasaitasuna dela, euskararen etorkizuna argitzen hasia baita, eta horren adibide garbia honako aldizkari hau dugu, orain zenbait urte pentsaezina zena egia bihurtuta.

Gasteiztar euskaltzalea eta euskaltzale gasteiztarra, zer espero dute ba! Eta begibistan da piloa garela ... Esaera zaharrari jarraiki, "musikaren berririk, azaletik bederen ez duten dantzariak" joan daitezela euskararen alde horrenbeste lan egiten ari den udal folkloreakademiara, eta bertan, apika, lozorroan dutena esnatuko zaie. Hala izan bedi!

*Joseba K. Perez de Heredia*

**HEMEROTEKA**

«Azken finean, lan egitea, baita bizitza ere zein gogorra den adierazi besterik ez dugu egiten.»

**Mikel Gomez de Segura.**  
(«Traspasos» dantza-taldekoka)

«Udaletxeak Principal Antzokian egin duen programazioa antzerkiz luze baina musikaz labor izan da»

**Iñaki Añua.**  
(Principaaren zuzendari-ohia)

«Fantasia hil zorian dago»

**Julia Larrinbe.**  
(Aktorea eta ihauterietako pregoalaria)

«Jendeari bere herriko kultur ezaugarriak erakutsi behar zaizkio.»

**Jon Zabala**  
(IKAko irakaslea eta toponimiazalea)

«KORRIKA, jai erraldoi honetan partaide izateak sortzen duen zirrara eta emozioa sentitzeko zoria izango dugu denok»

**Angel Olalde.**  
AEKko arduraduna.

«Neurri minimo batean, behintzat, euskarak kalea hartu du»

**Eusebio Osa.**  
Euskaltzale eta Magisteritzako irakaslea.

**GERO GEROKOAK.**  
**ORAIN**

**EUSKARAZ**  
**BIZI!**



Peru kalea, 8 Tfnoa: 22 60 50 • Jose Mardones kalea, 8 Tfnoa: 26 35 40

# Etxeko lanak erdibana



Azken bolada honetan, badirudi gizon asko etxeko zereginetaz arduratzen hasiak direla. Halere, noizbehinka umea paseatzera ateratzearekin edo basura jaistearekin kontzientzia lasaitzea ez da aski, eginbeharreen zerrenda askoz luzeagoa baita.

Betidanik, baita gaurregun ere, etxe barruko lanak bigarren edo hirugarren mailakoak kontsideratuak izan dira. Baina, hurrei arropak aldatzen, janaria erosten, sendagileari deika, frigorifikoak hustu eta betetzen, ohe azpi eta iskinatako hautsak garbitzen edota aurrekontua egiten, ez al dira lanak? ez dituzte orduak eta orduak eskatzen?

Gainera, lau horma horien artean bizitzako ia-ia erabakirik garrantzitsuenak hartzen baitira, orduan zergatik ez dira erdibana egiten?


**ELKAR**
**FAGOR**

**SUKALDEKO  
 HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ


**ALBENIZ**  
 MOBILIARIO

 Cercas Bajas, 8  
 Telefonoa eta Faxe 28 74 82  
 01008 GASTEIZ

# Kalea Mintzo

## Etxeko zereginetan aldaketarik ba ote?

Gizarteak aldaketa haundiak jasan dituela historian ikasi izan dugu eta azken hamarkadetan bilakaeraren erritmoa bizitu egin dela ere agerikoa da. Prozesu hau, ordea, bizitzaren esparru guztietan ez da abiadura berdinez gertatu. Eredu gisa, gizon eta emakumeen harremanen arteko adierazgarri den adibide bat jarri dugu. Hau da, gizonezkoak etxeko lanen ardura hartu edo hartzeko bidean ote dauden benetan. Honetarako, lau gizonezko eta lau emakumezkoengana hurbildu gara bat ote datozen jakin nahian.

- 1.- Zuen etxean gizonezkoak egiten al ditu etxeko lanak eta denetik egiten al du?
- 2.- Egin duzuen lan banaketarekin kontentu zaudete edo hobetu daitekeela deritzozu?



### JESUS BOGANTES. (Tornularia)

- 1.- Batzuk bai: ekonomatoan erosketak egin; haurra autobusera eraman eta ekarri; gau adibidez, etxerako erosketa batzuk egiten ari naiz; noizean behin lisatu edo arropa garbitu ere bai; ontziak garbitzeko ere ez dut inongo arazorik.
- 2.- Bai, biok lan egiten dugunez, astia edukitzeko modu bakarra lana banatzea da. Hala ere, gizonezkoak, ni barne, oraindik nahiko matxistak gara uste dut. Azken belaunaldiko gazte askotxok ere emakumea aintzat hartu gabe daukate.

### BEGOÑA CARRO. (Lizentziatua)

- 1.- Ezer ez. Nire nebak ez du inolaz ere etxean ezer egin nahi. Etxeko lanaren zati bat berari dagokiola ohartu arren, erosotasunagatik edo aferkeriagatik ez du kolpe santurik jotzen.
- 2.- Ez. Hobetu daiteke mentalizatuagoak daudelako. Emakumeak etxetik kanpo lan egiteak eta heziketak berak eragin nabarmena izan du mentalizazio honetan.



### ELENA FERNANDEZ DE ARRIOLA. (Etxekoandrea)

- 1.- Askok lagutzen dit. Dakiena egiten du: afaria egin; mahaia bildu; umeak zaindu nik ezin dudanean paseora eraman, eta abar.
- 2.- Eginbehar ugari egiten ditu, beraz, ni gustora nago lan banaketarekin. Uste dut gizonezkoak konturatzen ari direla etxeko lanaren garrantziaz. Garai bateko amek nahiago izaten zuten semeek etxeko lanik ez egitea, zeregin hori neskeei zegokien. Gaurregun pentsakera hori aldatzen ari da, eta piskanaka, piskanaka, denok berdinak garaia konturatzen ari dira.



### JUAN MANUEL PALOMO

1.- Bai, zerbait bai: ontziak garbitu dagokidanean, irensgailua pasatu, hautsa kendu...  
2.- Gizonezkoak etxeko lanetan parte hartzearen aldekoa naiz. Bilakaera egon da, emakumezkoa lan munduan murgildu denez gero, jendea konturatu da etxeko zereginak denonak direla. Halaber, emakumeek gogor ihardun dute gizonezkoei pentsakera aldatzeraino. Gaurko gazteak gai hauetan helduagoak dira eta esango nuke berdintasuna lortzeko ez gaudela oso urrun.

### MIGUEL ANGEL SANTANO. (Karguduna)

1.- Oso gutxi. Andrea gaixorik egonez gero zerbait egiten dut, bestela ezer gutxi, mahaia jarri, kendu.

2.- Banaketa hobetu beharko litzateke, baina, ni horrela oso lasai nago. Andreak etxetik kanpo lanik egiten ez duenez, berak denbora gehiago dauka. Emakumeaz baliatu egiten garena konturatzen gara, halere, oso erosoak gara eta ahal izanez gero ez dugu ezer aldatu nahi izaten.



### MONTXE ARRIETA . (Erizaina.)

1.- Batzutan bai, baina ardura nirea da. Eguneroko erosketa, garbiketa, bion artean egiten dugu; antolaketa, ardura, etxeko zama, ordea, nirea da.

2.- Ez, ez. Erantzunkizuna biona izan behar da. Egoera aldatu bada halabeharrez izan da, emakumea etxe zulotik atera delako, gizona aldatzera behartuz. Dena den, gaur egungo gurasoak gehiago saiatzen dira haurrak berdintasunean hezitzen. Oraingo umeak ezberdinak dira.

### JOSE LUIS CATON. (Arkitektoa)

1.- Jakina baietz. Denetatik egiten dut.

2.- Ni banaketaren aurka nago, horrek berezkoa izan behar. Orain bere papera aldatzen ari denez, gizonezkoa behartua sentitu da etxeko lanetan parte hartzera. Dena den, uste dut gizonok denboraren poderioz moldatuko garena egoera berri honetara. Gizon askok etxeko zereginetatik libratu nahian beren semeeci eginaraziko dizkie lan horiek, eta ondorioz, seme hauek beste jarrera erakusiko dute. Hala bedi!



### ANA LARRAURI. (Erizaina)

1.- Bai, eginbeharrak zehaztu gabe egon arren, lana banatuta daukagu.

2.- Ez, ez nago ados ez delako egon egiazko aldaketarik, bilakaera baikorra egon dela uste izan arren. Gizonezkoak pentsatzen du zerbait egiten duela, laguntzen zaituela, baina, ez du sentitzen bere betebeharra bezala. Emakumeak etxetik lan egiteaz gain, etxekolana eta seme-alaben ardura jasan behar du. Eskoletako heziketa hobetu eta emakumeak gizartean bere lekua aurkitzen duen neurrian, egoera hau, akaso, aldatuko da. Etxeko zereginetan aldaketarik ba ote?

# IBUSGAR'I

## t i n t a t e g i a

Alfonbrak, mantak eta edredoiak, narruzko arropak,  
berokiak eta lumazko arropetan espezializatuak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIZMENDI, 20  
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ

### Auzoz-auzo, hemen:

- Ariznabarra: Ociogaztelua, 21 • Astulezgaiztelua, 3
- Sansomendi: Valentin Foronda, 3
- Zaramaga: Zuta, 14 • Nafarrako Erregeak, 56
- Abendaño: Abendaño, 1-37
- Adurza: Nieves Cano, 6 • Pio XII, 5
- Adriano VII, 1
- Pedro Orbea, 2

# Bazenekien...?

*... Gaur egun Villa Suso izenaz ezagutzen dugun jauregia izen bereko plazan eraiki zutena 1539an?*

*... Suso izenak "goikoa" esan nahi duena, hain zuzen ere 1181ean muino gainean Gasteizek barnehartzen zuen hiria adierazteko erabilia?*

*... Garai hartako Villa Susok hiru kale (gaur eguneko Fray Zacarias, Eskolak eta Santa Maria) eta bi irteera (San Bartolome izenekoa hegoaldean eta Santa Maria iparraldean) besterik ez zuena?*



*... Dona Maria katedrlea eta Done Bikendi eliza, orduko hiriaren defentsarako zeuden bi dorre edo gaztelu zaharren lekuan jaso zirena?*

*... 1202an hiria erabat kiskalita gelditu ondoren, "Villa de Yuso", hots, "behekoa" osatzen hasi zena Korreria, Zapateria eta Herreria kaleekin?*

*... Gaur egun Foru Aldundia eta Jesusen Zerbitzariak kaleen azpitik igaro den Zapardiel erreka hiriak zeukan harresiaren sartaldeko muga izan zena?*

*... 1256an Alfontso X Jakitunak beste hiru kale berri zabaldu zituen sortalderantz: Kutxillera, Pintoreria eta Juderia?*

**GASTEIZ** euskaltegia  
Errege katolikoak, 15-C.

Tfnoa: 28 89 22

**PINTO** euskaltegia  
Pintoreria 74.

Tfnoa: 28 97 80

**ZALDIARAN** euskaltegia  
Zaldiaran Plaza, 16.

Tfnoa: 24 49 05

**EUSKARAZ**




**JANTZIAGO EUSKALDUNAGO**



# EUSEBIO OSA

## Agur t'erdi, adiorik ez!



Geu-Gasteiz aldizkariaren honako zenbaki hau prestatzen ari ginelarik, Eusebio Osa hila zela jakin genuen. Eusebio, euskalgintzan hainbeste urte eman ondoren euskaltzaleon eskerrona merezi duelakoan, hona hemen omenaldi txiki bat izan nahi duten orrialde hauek.

## EUSEBIO OSAREN bizitzaren zertzelada batzuk

Eusebio Osa Unamuno Bergarako San prudentzio auzoko Sakona baserrian jaio zen 1936ko martxoaren 27an.

Oñatiko "Canónigos Regulares"-etan abade ikasketak egin zituen, geroago apaizgoa utzi bazuen ere.

Eusebioren bizitza osoa euskarari eta euskal kulturari lotua agertzen zaigu.

60ko hamarkadan hasi zen idazten. JAKIN, ARGIA, ANAITASUNA, OLERTI eta beste zenbait aldizkaritan idatzi izan ditu artikuluak, eta berrikiago EGIN eta EGUNKARIA periodikoetan. Hasierakoetan "Sakone" goitizena erabili izan zuen, jaio zeneko baserriaren izenaren ahozko forma hain zuten.

60ko hamarkadaren bukaera aldera Gasteiza etorri zen bizitzera. Segituan lotu zitzaion euskalgintzari: euskara irakasten aritu zen, Gasteizko AEK-ren sortzaileetarikoa izan zen, ikastolen mugimenduan ere lan egin zuen, e.a. Bestalde, euskalgintzaz aparte, garaiko borroka sozialetan ere parte hartu zuen.

70eko hamarkadan bi liburu idatzi zituen (1972: *Pedagogia eta gizartea*, Lur, Donostia; 1975: *Dialektikaz eta kulturaz*, Kriselu, Donostia) eta beste batzutan parte hartu (1971: *Erljioa hauzipean*, Joseba Arregi, Joxe Azurmendi, Txillardeggi, J. M. Torrealdai eta Pierres Xarriton-ekin batera; 1972: *Gure Ikastola*, Jakin Sorta).

1980ko ekainean Ecuador-eko "Pontificia Universidad Católica"-n Filosofiako Lizentziatura lortu zuen "La

escuela de Frankfurt-El pensar negativo" izeneko tesinarekin.

Urte bereko urrian Gasteizko Irakasle Eskolan sartu zen eta harrezkero bere bizitza Euskal Herriko Unibertsitateari lotua egon da. Hamabi urte pasatxo hauetan Euskal Dialektologia eta batez ere Euskararen Morfosintaxia gaiak irakatsi ditu Euskal Filologia espezialitatean. 1989ko urtarrilean Doktore gradua lortu zuen bere Euskararen hitzordena, zeregin komunikatiboaren arabera izeneko tesiarekin, lan honekin urte bereko ikerketako AZKUE saria irabazi zuelarik. Tesi hori Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratu zuen 1990ean titulu honekin: *Euskararen hitzordena, komunikazio zereginaren arauera*. Bestalde, azken urte hauetan tesiaren gaiaren inguruan zenbait artikulu idatzi ditu TANTAK, EUSKERA eta ASJU aldizkarietan.

Bere irakasle eta ikerketa-lanez gain, zenbait kargu akademiko ere izan ditu, hauen artean inportanteena E.H.U.ko Euskararako Kabinete Teknikoko Zuzendaritza izan delarik. Ardura hau 1988ko maiatzaren lehenean hartu zuen eta zendu den arte eraman du.

Unibertsitatetik kanpo, lehen ere esan dugunez, Eusebio estuki loturik egon da euskara eta gizarte-mugimenduekin. Ezin ahantzi EUSKALDUNON EGUNKARIA-rekin zuen

lotura eta konpromezua, hasiera-hasieratik ibili baitzen bultzatzen - EGUNKARIA SORTZEN batzordeko kidea izan zelarik-, eta sortu ondoren hamabostero idazten baitzuen bere artikulu zorrotz eta landua EGUNKARIAko 2. orrialdean.

Aipagarria da halaber ere Eusebioren bertsozaletasuna: bertsoak idazteaz gain, gaijartzaile eta txapelketetako epailelanetan ere aritua izan da.

Bere euskaltzaletasunak eta euskararen normalkuntzaren aldeko apostuak Gasteizen sortu berri den **Geroa Elkarrekin Lantzen** taldeko lehenengoetarikoa bazkidea eta lankidea izatera eraman zuen.

Baina euskaltzaletasunarekin batera, Eusebiok ez zuen inoiz gutxietsi ez alboratu Herri honek politikoki eta sozialki dituen premien zerrenda. Ezin aipatu gabe utzi, esaterako, bere partaidetza elkarriketaren eta bakearen aldeko *Elkarri* mugimenduan. Bera hil baino 20 egun lehenago EGUNKARIAN argitaratu zioten azken artikulua ("Test bikaina") elkarre horretaz ziharduen.

Euskarari eta euskaldunari, langileari, behartsuari, adiskideari eskainitako bizitza!



**MOBILIARIO kide**  
apaindura

Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-

**VDA BERRIA**

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12  
**GASTEIZ**



## Adio eta gero arte Eusebio!

Zirrara sakon batek hartu zidan barrena Eusebiori buruz lerro batzuk prestatzeko gonbitea luzatu zidatenean. Berehala hasi nintzen hitz egokien bila, oroitzapenik onenen bila eta bai hitzak, bai oroitzapenak, etengabe, gainezka eta erdi-nahasian zetozkidan burura. Baina ez nintzen ziur zerbait tajuzkoa gauzatzeko gai izango nintzen ala ez. Telefonoaren bestaldean jarraitzen zuen oraindik GEU-GASTEIZ aldizkariaren izenean deitu zidanak: "Aizak, Pako! Hik aspalditik ezagutzen duk, aspalditik duk lagun Eusebio eta..." Halaxe da, izan ere. Ni mutil koskorra nintzen artean, bera ondotox mutildua, ia gizondua, Oiñatiko komentuan ezagutu nuenean.

Ondo gogoan dauzkat oraindik, mugagabeko patxadaz eta pazientziaz,

bere abots ezta medio erakutsi zizkigun euskal kanta zahar ederrenak. Bertsozalea izan da beti, bertso idazlea, agian poeta gehiago bertsolaria baino.

Nire oroimenean diraute, han Oiñatiko komentuan, frankismoaren urte gogorretan, euskararen eta euskal kulturaren bidean eman zituen lehen urratsak. Gogoan, multikopista zaharkitu bat lagun, argitara ematen zuten aldizkariaren izena: "EREIN".

Bera izan zen sortzaileetarikoa bat. EREIN! Hara non aurkitu dudun hitz justua, bila nenbilen hitz egokia, aproposa! "Sakona" baserrian jaioa, hazia eta hezia izanik, txiki-txikitatik ikasi zuen, nonbait, hazia ereiten.

Gogoan daukat Gasteizera etorri eta elkarrekin bizitzen jarri ginen urtea: 1967a. Handik lasterrera ezagutu zuen bere "Aran" kuttuna. Etorri eta berehala hasi zen Arabako lur zabaletan euskararen hazia ereiten, Agurainen lehendabizi, Gasteizen ondoren. AEK aurretiko urteak ziren. "Juan Bautista Gamiz" sortu eta, elkarlanean, euskalgintzan aritu ginenok ondo asko dakigu zenbaterainokoa izan zen Eusebioren lan isila. Ez zuen protagonismorik maite, baina aitortu beharra daukat gorputzean zuen ainako pisua eta itzala izan zuela euskal kulturaren munduan. Hizketan eta idazten trebea, entzuten hobe. Entzuten zekiena. Eta ez da gutxi!

Ahantzezina zait Araozko barnetegi zoragarri hura, egun batzuk "hotel" ilunean eman behar izan bagenituen ere. Gaupasa pranko egin genuen elkarrekin, kitarra lagun.

Behin eta berriz datorkit gogora, nola ez!, Martxoaren 3ko gertakizun garrantzetan erakutsi zuen jarrera konprometitua. Euskaltzale sutsua bai, baina hori baino askozaz ere gehiago izan da Eusebio: pentsalari kritikoa, langileriaren eta herri xehearen aldeko apostuan tinko iraun duena. Hitzak eta ekintzak osatu dute Eusebioren bizitza.

Atsegin dut Arabako mendi gailurretan elkarrekin egindako oihu, kantu-saio eta irrintziak gogoratzea. Naturazalea, gogoko zituen oso ibilaldi lasaiak, arnasa sakon hartuz, bere birika ahulduak haizeberritu nahaian bezala.

Nire oroimenean iraungo dik, Eusebio, duela hiru hilabete edo, patxadarik ederrenean, bizikletaz pantanoari buelta eman genion larunbat eguzkitsu hark. Nire oroimenean zeukeat, Gasteizera heltzeaz, izerdi-patsetan eta kontu-kontari, aireportu zaharreko taberna-atarian hartu genian zerbeza freskoa.

Hire gorputzaren freskotasuna minbizi madarikatu horrek eraman ziguk baina hik heuk ereindako hazia aspalditik ari duk fruitu freskoak ematen. Gasteizko Esperantza elizan azken agurra eman asmoz bildu zen jendetza lekuko.

Adio, eta gero arte Eusebio!

**Pako Eizagirre**



**ARTEPAN**

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ



**ardatz**

**itzulpen eta  
euskara zerbitzuak**

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

**GUREA DA!**

Gurea da,  
gurea da  
etorkizuna,  
bizitzaren bizi  
nahia.

Bizi bedi,  
bizi bedi  
Herriaren  
arnasa,  
gizonen oinatza.

Itsasoan ura,  
mendian elurra:  
itsas-mendietako  
gizona, gora!

Gurea da bizi  
nahia:  
bizi bedi, bizi,  
Herriaren  
arnasa!

Aintzinako  
sustraietatik  
edan gizonak  
gogotik.  
Lehena, oraina  
eta geroa  
bijoaz beti  
eskutik.

Piztu bedi  
esperantza:  
ez dugu dena  
gau beltza;  
lozez apaina  
ageri zaigu  
Euskal Herriko  
baratza.

**Zenbait zertzelada:**

“Zeru-oskorria  
euskararentzat  
Itsasoaren urdina  
euskararentzat  
Egunaren argia  
euskararentzat  
Hiztun guztiak  
euskararentzat  
Oraina eta geroa  
euskararentzat  
Udaberriko kimurik  
ederrena euskararentzat”  
(1985-V-2)

“Eskerrik asko denoi  
gizon eta dama  
haundia izan baita  
lagun batzun lana  
merezia duzue  
Cubako Habana,  
Brasil aldeko Rio,  
ta Kopakabana,  
hori eziña denez,  
txanpan kopa bana”  
(1987-II-13)

**Eusebio Osa**



**ABEL ENBEITAK**

**EUSEBIO OSARI**

I

Agur eta ohore!  
hori ez da dana  
nahiz eta Xalbadorrek  
bertsotan esana.  
Nola ahaztu kolpera  
guretzat zinana?  
Herri konpromezuan  
bizitza emana  
Neretzat ohore da  
laguna izana

II

Euskara maite zuen  
Euskadi ere bai  
maiz jartzen zuten hauek  
amets gozotan blai  
Gaur bere lana dugu  
lagunak aztergai.  
Hala ere ez diot  
agurrik egin nahi,  
nahizta bi malko izan  
noiz eroriko zai.

**MUGA**

**LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA  
KARTOGRAFIA, BIDAIK  
ETA MENDI GAIETANA**

driano VI, 4  
Tfnoa: 14 63 25  
GASTEIZ

Navarrería, 20  
Tfnoa: 22 25 29  
IRUÑEA-

KOADROAK  
MOLDURAK  
LAMINAK  
MARRAZKIAK

**zurbeltz**

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

# Bi aktore gasteiztar, pantailaren bestealdean



**Karra Elejalde eta Jon Gabella, "Acción mutante" filmean parte hartu duten bi aktore gasteiztarrak ditugu. Antzerkigintza lan egin dute gehien bat eta antzerkia gehiago atsegin dutela aitortu diguten arren zinemari esker lortu dute arrakasta.**

# Karra Elejalde

## «Zineman aktorea tresneriaren menpe dago»

**Nola definituko zenuke egin berri duzun "Acción mutante" filmea?**

Oso pelikula ona da, umorezko pelikula. Alex de la Iglesia idatzitako gidoian agertzen den umorea oso ondo isladatzen du filmeak, umorez eta letxe txarrez egindako gidoia.

Nik, egia esan, oso gustora egin dut lan eta emaitzarekin oso pozik nago.

**Egun hauetan Juanma Bajo-  
Ulloaren bigarren luzemetraia  
ere amaitu duzu. Oso  
desberdinak al dira bi filme  
hauek?**

Erabat. Juanmaren filmea berak egin ohi duen zinemaren adierazlea da. Filme honek ikusleak hunkitu eta sentipen desberdinak sorraziko ditu. ikuslearengan. Oso filme ona egin dugula uste dut, benetan bikaina.

**Nahiko lan egin duzu  
azkenaldi honetan. Zuk uste al  
duzu -batzuek horrela diote  
eta- zinema krisian dagoela?**

Mundu mailan zinea krisian dago,, baita Europa mailan ere eta Estatu mailan are gehiago. Baina Euskal Herrian gauzak kontatzeko irrikitan dagoen jendea egon badago. Zinemaz asko dakien jendea da eta gauzak kontatzeko era desberdinak dituena: Juanma Bajo, Alex de la Iglesia, Julio

Menem eta Enrique Urbizu, besteak beste Beraz, izen hauek ikusita, ez nintzateke Euskal Herriko zinemagintza krisian dagoela esatera ausartuko, ezta gutxiago ere!

**Zuk zuzendari hoiekin egin dituzun lanen esku oso ezaguna egiten ari zara.**

Baietz esan daiteke. Egia esan Juanmari esker izan dela uste dut. Izan ere, Juanma duela sei edo zazpi urte ezagutzen dut eta Julio Menem eta Alex de la Iglesia bere lagunak dira.

**Zinemaz gain telebista eta antzerkigintzan ere lan egin duzu. Zein mediotan lan egiten duzu gustorago?**

Telebistari gorroto diot, sormena eta irudimena hiltzen duen medioa dela iruditzen zait. Gainera telebistan lan egiteak erretzen zaitu erabat.

Zineman gero eta gustorago nago. Dena den zinemagintzan aktorea argia, kamara eta hainbat tresnen menpe egoten da, aktorearen lanari mugak jartzen zaizkio nolabait esateko. Eta hori ez zait gustatzen. Dena den lan txiki baten truke telebistak eta zinemak asko ematen dizute batzuetan.



**Telebistari gorrotoa diot,  
sormena hiltzen duen  
medioa iruditzen zait.**

**Ez nuke Euskal herriko  
zinemagintza krisian  
dagoela esango.**

Orain arte, hala ere, antzerkigintan aritu naiz batez ere. Antzerkia eginez asko ikasten dut, honek ikertzeko aukera izugarria ematen baitit. Gainera nik hasi, gidoiarekin hasten naiz, baina antzerkigintzaren urrats guztietan parte hartu ohi dut. Hori bai, antzerkigintzak ez du dirurik ematen.

# axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



**zalu**

FOTOKOPIAK

**Berehalaxe!!**

Prado 20

Tfnoa: 945-288248 • Faxe: 945-253291

# Jon Gabella

## «Aktore batentzat antzerkia politagoa da»

**Nola aukeratu zintuen Alex de la Iglesia "Acción mutante" pelikulan lan egiteko?**

"Todo por la pasta" egiten ari ginenean berak idatzitako gidoi batetan neretzat egokia omen zen pertsonaia zegoela esan zidan. Lehengoetan laburmetraia egitea zen bere ideia, gero telebistarako seriea izango zela zirudien. Azkenean, ez dakit nola, Almodovarrek eskubideak erosi zituela azaldu eta filmea egingo genuela esan zidan Alexek.

Errodaia ondo joan zen. Oso jende jatorra elkartu ginen bertan, aurretik Alex Angulo, Saturnino García eta Karra ezagutzen nituen gainera. Hala ere, lan gogorra egin genuen.

Lanaren emaitzarekin oso gustora gelditu naiz. "Acción mutante" denbora pasatzeko filmea da eta hori garrantzitsua da Estatu Espainiolean ez delako inoiz horrelako pelikula bat egin. Gainera orain arte oso erantzun ona izan du pelikulak.

**Nola hasi zinen zinemaren munduan lan egiten?**

Eskolan kamarak erabiltzen ikasteko praktketan taldeak osatzen genituen eta hor guztiok denetatik egin behar genuela suposatzen da. Baina nire taldean kamara atzean oso onak diren bi lagun zeuden: Juanma Bajo-Ulloa eta

Cristobal Baigorri. Nik aktore lanak egin behar nituen. Hori dela eta "A kien pueda interesar" eta "Akixo" laburmetraiak egin nituen Juanmarekin.

**Hortik aurrera dena den, zinea baino antzerki gehiago egin duzu.**



**Lan egiteko antzerkia nahiago arren ikusle bezala zinea aukeratzen dut.**

**Zoritzarrez euskara hutsezko lanak ez dituzte kontratatzen.**

Bai. Bi laburmetraiak eta gero antzerkigintzan aritu naiz batez ere tartean "Todo por la pasta" eta "Acción mutante" egin badut ere.

Antzerkigintzan Gasteiz Antzerki Taldearekin egin dut eta talde honek azken urteotan egin dituen muntaia guztietan parte hartu dut. "Betizu" izan da egin dudan lanik arrakastatuena, ez da gehien atsegin dudana baina bai gehien ezagutzen dena.

**Euskaraz egin duzu lan maiz. Arazorik al dago lanak euskaraz egiteko?**

Haurrei zuzendutako antzerkia egin dugunean euskaraz eta gazteleraz egin dugu gehienetan. Baina zoritzarrez euskara hutsezko lanak ez dituzte kontratatzen. Bi hizkuntzetan eginez gero emankizun bat euskaraz eta bestea gazteleraz egiteko hartzen zaituzte.

**Eta non egiten duzu lan gustorago zineman ala antzerkian?**

Egia esan zorte handia izan dut orain arte zinemagintzan egin ditudan lan guztietan. Gustoko lanak egiteaz gain oso jende jatorra topatu dut. Hala ere aktore batentzat antzerkia politagoa dela esan daiteke, interesgarriagoa. Gainera zinemak diru-gehiago ematen du. Egia esan ez dakit: lan egiteko antzerkia, ikusle bezala zinema.

**GILTZA AR/BA**  
**ZERRAILDEGIA**

LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ  
zerrailak, giltzak, atek kotxeak...

Tfnoa: 945-26 57 29

Jose Mardones, 7  
01004 GASTEIZ

**arcaya**

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tfnoa: 28 08 69

**SOINUA**  
**IRUDIA**  
**ARGIZTAPENA**  
**ELKTRAGAILUAK**  
**OPARIGAIK**

**MARTXOAK 11**

**HIGIENISMOARI  
BURUZKO HITZALDIA**

*Sumendi*

Arratsaldeko 7,30etan Landatxo  
Gizarte -etxean (Campillo)

**MARTXOAK 15**

**PARAPSIKOLOGIARI  
BURUZKO HITZALDIA**

*Iñaki Gauna*

Goizeko 12eta eta arratsaldeko  
7,30etan Landatxo Gizarte-etxean  
(Campillo)


**Laguntzaileak:** GEL, AEK, IKA,  
BAGARE, MAGISTERITZA  
ESKOLA, HABE, IRALE,  
HEGOALDE,  
UDABERRIA,  
BERTSO  
ESKOLA,  
KOLDO  
MITXELENA,  
EHE eta  
GASTEIZKO UDALA



**4.000 PARTAIDETIK GORA IHAUTERIETAN**

Besteak beste, honako talde hauek hartu zuten parte  
desfilean:

Buen Pastor • Arabako Eskaut Laikoak • Adurtza • Iparralde •  
Scout Escolapios • San Prudencio ikastetxea • Avenida •  
Hogar Extremeño • Scout La Esperanza • Judimendi •  
Ipar-Arriaga • Indarra • Abetxuko Gizarte-Etxea • Santa Lucia  
• Lagunak • Centro Andaluz • Eguzkizaleak • Sansomendi •  
Burzakos • Alde Zaharra • El Pilar.



Egurrezko jostailuak



Didaktika - materiala



Beniz

Opariak

Benito Ginea, 2  
Tfnoa:25-75-14  
GASTEIZ



## I K U S I T A K O A K



1



3



4



5

- 1.- Benetazko 60. hamarkadaren «rockeroak» dantzan aritu ziren.
- 2.- Abetxuko Gizarte-Etxeak «Hara, hara, hemen badago hondartza» karrozarekin 1. saria eskuratu zuen.
- 3.- Deabrutxok bereak eta bi eginomen zituen bere aitaren eskutik.
- 4.- «Rockero» txikiak San Prudentzio ikastetxetik atera ziren.
- 5.- Zadorrako bikingoak ibaia zaborraren atzaparretatik libratu zuten.

# IKUSITAKOAK

- 1.- Ai, Mexiko, Mexiko!
- 2.- Dantza eta dantza!
- 3.- Ba dago kandela!



**Ihauteriak pasa eta gero, elurra. Gure hiria zuriz jantzi eta jolaserako aukera izan genuen**

**LIBURUAK**


**ARABAKO ARKEOLOGI MAPA.** Arabako Foru Aldundia.

Liburuak Araban kokatuak dauden trikuharriak, haitzuloak, erromatar aztarnak eta gainerakoak berri ematen ditu (ele bietan).

**AMADEO GARCIA DE SALAZAR.**

«ARABARRAK» Bilduma. Pedro Gomez Otxoa. Arabako Foru Aldundia

Bertan gasteiztar honen bizitza ezagutzera ematen zaigu, hau da, gizona, mediku eta futbol-selektzionatzailea..



**AFRICA.** Manuel Iradier y Bulfy. Arabako Foru Aldundia.

Manuel Iradier esploratzaile gasteiztarrek Ginean zehar egindako bidaiak 210 orrialdetan azalduta.

**LIBRO DE COCINA.** Elvira Arias de Apraiz. Arabako Foru Aldundia.

Garai bateko sukaldaritzaz zerbait jakin nahi baduz, hona hemen behar duzuna. Liburuxka honetan 615 errezeta agertzen dira.


**HONTZA**
**Gazte-musika**
**Gasteiztar Rockalaria izatearen arazoak**

Pasatu berri ditugun haratuste egun hauetako makilaje lodiek eta jantzi ponpoxek ezindute inolaz ere Gasteizko rock talde berrien gorakada disfrazatu, ezta aurrera egiteko dituzten arazoak desagertarazi ere.

Irrikia nahiz bihotza musikariek dakarzkigute. Eragozpenak eta aukerarik eza, kultura eta rock-a gutxitan hurbiltzen dituen gizarteak jartzen ditu.

Kalitatea eta indarra, «Residuos Toxicos» edo «Obligaciones del Estado» izeneko taldeen abesti zerrenda osatzen duten edozein kanatatan dira nabarmenak.

Tamalez, proiektu musikalak aurrera eroateko desioa baino askoz ere gehiago behar izaten dela hartu beharko dute beti kontutan.

Dena den, Gasteizko musika inguruan bizirik irauteko, larregikoak

dira gainditu beharreko oztopoak: alde batetik, baldintza eskasak eskaini arren dirurik eza dela eta, hartu beharreko entsaio-lokalak; bestalde arestion aipatutako sosik ezak ezartzen dituen bestelako trabak, oraindik ere aurrekoak baino gaintituezinagoak, hau da, zuzeneko kontzertuak gauzatzeko jaso behar duten baino diru gehiago gastatu behar izatea. Ondorioa ikusterreza dugu: talde hauek burutzen dituzten kontzertu guztiak eurek beraiek finantziatuak ditugu. Gezurra badirudi ere, jo ahal izateko ordaindu beharra dute.

Hau guzti hau gutxi balitz, bere ekitaldian motibazio eta gogo ezin handiagoa jarri ondoren, dagoen ikusentzulegoak trabak eta kritika latzak besterik ez ditu aurkeztuko. Izan ere, orokorrean ikuslegoa kezkatuago egoten da taldeak epaitzeko, aurreko



iluntasuneko lan itzela eskertzeko edota errekonozitzeko baino.

Arlo kultural honexek merezi duen laguntzaren zain gaude; bitartean, baikor, lagun ditzagun banda hauek euren oztopoz beteriko lasterketa honetan. «Residuos Toxicos», «Obligaciones del Estado» eta Gasteizko musikal panorama honen zenbait taldek eskertuko dizute.

Jose Mari/Txabi Arnal Gil

**GEU GASTEIZ**
**HILABETERO  
5.000 ETXETAN**

*Muluma*  
**MASAIA - QUIROMASAIA**  
*Kote Zubizarreta*

Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06


**ONAINDIA  
garraioak**

Denerako prest  
 Tfnoa: 908 - 67 34 77 • ARABA

# hAurRAK

## EUSKAL TELEBISTA: eta guretzat zer?

Kaixo! Bi neska Gasteiztar gaituzue, 11 urte dugu eta Geu Gasteiz aldizkarirako artikulu txiki bat egitea pentsatu dugu. Euskal Telebistari buruz hitz egin nahi dizuegu.

Lehen Euskal Telebista asko ikusten genuen, orain aldiz, ez gehiegi. Eta ez gara gu bakarrak! Gure klasekoei ere antzera gertatzen zaie. Gehiago entretenitzen gara gaztelaniazko programekin. Euskal Telebistan, gure adinekoentzat ez dago ezer, jadanik marrazki bizidunekin nahiko aspertzen garelako. "Lehengo musuak" da gehien atsegin zaigun programa. Horrelako filme gehiago egotea gustatuko litzauguke eta umeentzako lehiaketak ere nahi genituzke, horrela, lehen baino ikusle gehiago izango litzatekeela uste dugu.

"Emakume bionikoa", "Riptai", "Xanfarin eta andere King", "Egun alaiak", "Txandaka" dira lehen ikusten genituen programak, eta, ahal balitz, berriro ere gure

## EUSKARA

Zuetako asko pentsatzen arituko zarete zergatik jarri diodan EUSKARA izenburua idazlan honi. Ba begira, ni 12 urtetako neska bat naiz eta ikusten ari naizenez Euskara oso gutxi hitzegiten da Gasteizen, eta ez bakarrik Gasteizen, baizik eta Euskal Herriko herri eta hiriburu askotan.

Euskara gehiago hitzegitea edo entzutea nahi nuke, baina ezinezkoa izango dela pentsatzen dut eta pena handia ematen dit, baina ahal dudana egiten saiatuko naiz, ez dut etsiko!

Nire ikastolan erdara gehiegi entzuten dut, nire klasekoek ere egiten dute erdara eta ematen duenez euskara galtzarena beraiei ez zaie piperrik ere axola. Nire aitak ez daki euskara baina hitz batzuk ateratzen zaizkio.

Nik, galdera hau egiten diot nire buruari: Euskara berriro berpiztuko al da noizbait? Nik espero dut baietz, baina zuek ere erantzun, ados?

pantailetan egotea maite genuke. Umorezko telesailak ere gustoko ditugu, batez ere lehen ikusten genuen "Hau da Hau", parre handiak egiten genituen eta.



Telesail bakoitza ere ordu hauetan jarri beharko zenituzkete: handientzako programak haurrak ikastolan dauden orduetan, eta umeenak umeak etxean dauden orduetan.

Honetan bukatzen da gure artikulua. Badakigu seguraski telebistakoei ez zaiela gure artikulua iritsiko, baina gure eritzia behingoz eman dugu. Eta zuek zer diozue?

Milesker Geu Gasteizkoei eta beste bat arte.

*Izar eta Maddalen*

Bestalde, esatekoa ere bada, ni euskal telebisita ez dudala gehiegi ikusten zeren eta programazioa ez bait zait asko atsegin.

Eta bukatzeko ohar bat, nik baditut bi lagun oso onak eta beraiekin ez dut inoiz erdararik egiten. Nire ustez, hori da euskara berpizteko bidea, ez al da hala?

*Eneritz*

Guri kontatzeko zerbait duzula?  
Zure ipuin bat? Idazlana? Poesi bat?  
Komiki politak daukazula kajoian?  
BIDALI GEU GASTEIZera eta aldizkarian  
aterako ditugul

**GEU GASTEIZ**  
1691 postakutxa. Gasteiz



**HEGOALDE**  
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ

**den-dan**  
haltzariak

Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49  
01008 GASTEIZ

# TXISKETA-MISKETA

—Aizu, Pello, begira ezazu intermitenteak funtzionatzen duen.

Negarrez ari zen ume gaisoa bere ama etorri zitzaionean.

—Orain bai, orain ez, orain bai, orain ez,....

—Zer duzu, Josetxo? Zergatik ari zara negarrez?

-----  
Mutiko hau ez zen jadanik hain kokkorra.

—Apaizak bi aitagure erreztzeko esan dit, eta nik bat besterik ez dakit.

—Aita, egia al da pertsonak eta animaliak hiltzen direnean gogor-gogor jartzen direla?

—Bai, seme, egia da hori.

Hori entzundakoan, negarrez hasi da mutikoa.

—Aitaaaa! Pitilina hil egin zait!

-----  
Bi anaia hauek ez omen ziren elkarren artean ongi konpontzen.

—Zu, aizazu. Oraintxe puntuan hemen Blas, errotariaren semea, izan da.

—Bai? Eta zer nahi zuen ba?

—Astoa eroatera etorri da.

—Eta zer esan diozu zuk?

—Ez zeundela etxean.



-----  
—Gabon, zer nahi duzu afaltzeko?

—Tortila bat.

—Frantsesa ala espainola?

—Berdin zait, ez dut berarekin hitz egin behar.

-----  
Itxura oso egokia ez zuen edukiko tipo hark, kaletik hanka-zabalka. Lagun bat inguratu zaio eta:

—Zer gertatzen zaizu, kolperen bat edo?

—Bai zera! Puzkarra zelakoan eta....

-----  
\*Arpa jotzen, Argia, 1983,

**G**  
GORETTI

**ILEAPAINDEGIA**

San Antonio, 29-Behea  
Tfno: 13 18 55  
01005 - GASTEIZ

**HADE**

**EUSKALTEGIA**

Elvira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan) • Tfnoa: 23 09 44 GASTEIZ

**hAurRAk**

*Ipuina*

**DILIJENTZIA**

Kalean dagoen auto zahar abandonatu batean sartu gara jolastera.

Pelloc eta beste mutilek esan dute indioetara jolastuko gara eta auto zahar hura dilijentzia bat izango zela. Neskak dilijentzian sartzeko eta beraiek atakatuko gintuztela...



—Eta gero, zer?

—Zuek indioak ikusi eta desmaiatu egin behar duzue.

Eta guk horrela egin dugu.

Gero, nik esan dut alderantziz egiteko, eta Pelloc esan du ezetz. Beraiek ez zirela desmaiatzen. Eta neskak haserretu gara indioena egin nahi genuelako eta beraiei tokatzen zitzaielako dilijentziakoak izatea.

Azkenean onartu dute, baina autoa inguratu dugunean, atea zabaltzeko eta tiroka hasi dira. Inor ez da desmaiatu, eta gu berriro haserretu gara.

Mutilekin ez dago jolasterik.

**Iholdi.**  
**Mariasun Landa,**  
**Erein, 1988**

Liburu interesgarria da, maitasunez egin eta Asun Balzolak ederki ilustratu duena bere estilo sinple eta zainduaz.

Iholdi liburu hau irakurri duzuen Dilijentzia honen antzeko ipuinez osaturik dago. Mariasun Landaren gainerako liburuetan bezala, estilo zainduan, euskara ulerterrez eta dotoreaz, neska-mutilen munduko istorioak agertzen zaizkigu. Mariasun Landak gaur egungo haurren kezak, jarrerak, arazoak eta pentsamenduak isladatzen ditu bere lanetan. Iholdi hau neskatila baten koadernoaren iznango litzateke, eta eguneroko gertakizunen ondoan, ipuinak edo Iholdiri bururatzen zaizkion zenbait pentsamendu agertzen dira.

*ditare*

**MIHISEDENDA**

**UME ETA EMAKUMEENTZAKO  
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK**

**Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ**

**zure euskal  
LIBURUDENDA**



Plaza Berria, 14  
Virgen Blanca, 1  
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

**errikoia**

# KIROLAK

## EVEREST 93

# ARABAKO ESPEDIZIOA



- Arabako espedizioa.
- - -** Ibilbide arrunta

# EVEREST: Lurretik zerua ikutu nahian

«Gailurra da, gailurra da. Gora Euskadi». 1980. urteko maiatzaren 14a zen. Hitz hauekin eta irratigailu baten bidez Martin Zabaletak espediziokideei euren lorpenaren berri ematen zien. Ordundik hona zazpi euskaldun gehiago igo dira Everestera. Oraingo honetan ordea, arabar batzuk zerrenda horri gehitzen saiatuko dira.



**JOSU  
FEIJOO**



**JOSU  
ALCARAZ**



**JOSE  
RAMON  
AGIRRE**



**JOSE  
MARIA  
OÑATE**

Hilaren 21ean espedizio arabarra Himalayarantz abiatuko da. Han Gasteizetik egun batzu lehenago ateratako bi espediziokideekin elkartuko dira. Topagunea oinarritzko kanpamendua (5340 m.) izango da eta aurrikusten duten data Apirilaren 3a. Handik aurrerantzean dena aldapa gora eta jakina, eginbeharrekoa ez da enpresa erraza. Igoera zenbaki hotzetan berehala labur daiteke, baina Nepaleko mendi ospetsu honen erdian arazoak ez dira inoiz falta. Alberto Zerain espediziokidearen hitzetan, «gure espedizioak "poloniarren ibilbidea" jarraituko du, bide arrunta baino zailagoa bada ere, bere abantailak ere baditu, besteak beste, zuzenago eta babestuago eramaten zaitu tontorrerantz. Honekin batera azken kanpamendua gailurretik gertu dago, eta azkenengo saiakera errezagoa izan daiteke».

Oinarritzko kanpamenduaz gainera, beste lau gehiago egongo dira. Lehenengoa 6100 metrotan, bigarrena 6500, hirugarrena 7200 eta azkena munduko lekurik garaienetatik 800 metrotara. Azkenengo honetan maiatzaren hasieran egotea espero dute eta eguraldiaren laguntzaz saiatuko dira tontorrera igotzen. Mitoz beteriko mendi honek talde lana egitera behartzen du beti. Esan genezake txirringularitzan bezalaxe, mendiak erabakiko duela nor den pribilegiatua. Josu Feijook, espedizio-buruak, honela adierazi digu GEU GASTEIZ-i, «bederatzi mendizale eta sei sherpa gara, eta printzipioz, denok mendia egiteko gauza gara»

## Abentura eta teknologia

Bestalde, espedizio honek teknikarik aurreratuen eramango du soinean. Gezurra badirudi ere, arabarrek armada amerikarrak



**ANBOTO**

TABERNA - JATETXEA  
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ

**Chimbo** Jatetxea

Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91  
GASTEIZ



Golkoko gudan erabili zuen "Saturn Compact" komunikazio sistema izango dute. Hau eta satelitearen bidez euren abenturaren berri etenik gabe eduki ahal izango dugu. Honi lotuta ere, Jose Ramon Agirre ataundarrak Everestetik parapentez jaistea du helburutzat. Parapentean Gasteizko irrati pribatu baten laguntzaz aparagailu bat izango du. Irratikoeak Agirreraren hegaldia zuzenean eskaini nahi diete entzuleei. Batzuen ustez berriz, teknologia guzti honek abenturari lekua kentzen dio, Alberto Zeraini honiburuz galdetzerakoan, argi eta garbi erantzun digu, «abentura mendizale bakoitzaren bihotzean doa. Beste guztia esponsorren kontua da».

Everesten 8848 metroak zailtasunez beteta daude. Arabako espedizioari dagokion bidea, esan bezala, "poloniarren ibilbidea" da. Bide hau Andrej Czok eta Jerzy Kukuczka poloniarrek ireki zuten orain 13 urte. Gaur egun Estatu

espainiarraren mendizale bakar batek lortu du Everestera igotzea ibilbide honetatik. Milaka espedizioek bidearen erdian amets guztiak utzi dituzte, beste batzuek bizitza ere. Azken hauen artean Juanjo Navarro euskalduna dugu. Ikus dezakegunez, Everest "handiak" gizonari bere indarra erakusten dio oraindik, eta 428 mendizale bakarrik igo dira eguzkiak berotzen ez duen leku horretara. Josu Feijoo honetaz ohartzen da, «Everest hor dago, guk ere hemen egon nahi dugu hau bukatu eta gero».

Orain 40 urte lehen aldiz gizaki bat Everesten gailurrean egon zen, urtemuga hau ospatzeko modurik onena arabarrek beraien helburua lortzea izango litzateke. Bertako etsai nagusiak 45º graduak zero azpitik eta haize gogorak izango dira. H

Hemendik Nepaleko jainkoen laguntza izan dezatela opa diegu. Suerte on.



### TXORI BATEK ESAN DIGU...

- Espedizio honetan zazpi arabar eta bi gipuzkoar daude.
- Espedizioako lagunik gazteena Juan Vallejo da, 22 urterekin. Zaharrena berriz, 36 urte dituen losu Alcaraz.
- Gasteiz mendi taldea eta Amurrioko mendiko lagunak dira euren klubak.
- Etxean bezala jaten saiatuko dira.
- Gailurra egitekotan, goian ikurriña jarriko dute.
- Haiek igoera bide arruntetik egin nahi zuten, baina lortutako baimenak "poloniarren ibilbide"-tik joatera behartzen ditu.
- Beraiekin batera Everestera 10 espedizio inguru igoko dira data hoietan.



**JOSE  
JAVIER  
UNAMUNO**



**MIGUEL  
ANGEL  
MORENO**



**ALBERTO  
CERAIN**



**IÑIGO  
BLANCO**



**JUAN  
VALLEJO**



**URTEGI-ALDE**

**SAGARDOTEGIA**

Urrunaga (Araba) Tfnoa: 45 50 67



**JATETXEA  
ERRETEGIA**

**OKELA ETA  
ARRAIN  
ERREAK**

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

**6**

**KONTZERTUA.**  
«THE EUROPEAN SINFONIE».  
Narratzailea: Miguel Bose  
Principal Antzokian 7,30etan.

**7**

**ANTZERKIA**  
Umeeta gazteentzako antzerkia.  
Achiperre taldea.  
«Rodando Rodari»  
Principal Antzokian 6,30etan.

**8**

**KONTZERTUA:** Yuval Yaron eta  
Celia Cho.  
Principal Antzokian, 8etan.

**9**

**OPERA:** «Carmen»  
Principal Antzokian 8,30etan.

**10**

**OPERA:** «Il trovatore»  
Principal Antzokian, 8,30etan.  
**KONTZERTUA:** Folklore eskola.  
Beñat Etxepare Antzokian  
8,30etan..

**11**

**TERTULIA:** Villasusoko tertuliak:  
«Artea kalean»  
Villasuso Jauregian, arratsaldeko  
8etan.  
**JAZZ:** Principal Antzokian, 8etan.

**12**

**ABESBATZA:** Saudade  
Araba Kultur Aretoan, 8etan.  
**ANTZERKIA:** Juan Antonio  
Kintana konpainia. «El Avaro»  
Principal Antzokian, 8,30etan  
**ESKOLAN DENOK EUSKARAZ.**  
7etan Ama Birjina Zuriaren  
enparantzan, manifestaldia.

**13**

**ANTZERKIA:** Juan Antonio  
Kintana konpainia. «El Avaro»  
Principal Antzokian, 8,30etan

**14**

**ANTZERKIA:** Ume eta  
gazteentzako antzerdia. Orain  
Antzerki taldea. «Marisabidilla»  
Principal Antzokian, goizeko  
12,30etan (euskaraz) eta  
arratsaldeko 6,30etan  
(gaztelaniaz)

**16**

**KONTZERTUA:** «Jesus Guridi»  
musika-eskolako irakasle/ikasleak.  
Araba kultur aretoan.

**17**

**KONTZERTUA:** Vadin Rudenko.  
Pianoa.  
Principal Antzokian 8etan.

**18**

**KONTZERTUA:** Euskadiko  
orquestra sinfonikoa.  
Principal Antzokian 7,45etan.

**20**

**ANTZERKIA:** Nuria Espert.  
«Maquillaje»  
Principal Antzokian, 8,30etan.

**21**

**ANTZERKIA:** Nuria Espert.  
«Maquillaje»  
Principal Antzokian, 8,30etan.

**22**

**KONTZERTUA:** Ertzantzaren  
Banda  
Beñat Etxepare Antzokian 3etan.

**23**

**KONTZERTUA:** Txindoki Brass  
Araba kultur Aretoan 8etan.

**24**

**KONTZERTUA:** Ertzantzaren  
Banda  
Beñat Etxepare, 8,30etan.

**25**

**TERTULIA:** «Ignacio Aldekoa»  
Villasuso Jauregian, arratsaldeko  
8etan.  
**ANTZERKIA:** Hector Alterio eta  
Paco Casares. «Los gatos»  
Principal Antzokian, 8,30etan

**26**

**KIROLA:** Arabako kirolaren  
popularrak. Gasteiz Irratia.  
Principal Antzokian 7,30etan  
**ABESBATZA:** Zintzarri Eskolania.  
Araba Kultur Aretoan 8etan

**28**

**KONTZERTUA:** Udal Banda  
Principal Antzokian 12,30etan  
**ANTZERKIA:** Ume eta  
gazteentzako antzerkia.  
Quiquilimon taldea. «La culpa fue  
de la luna»  
Principal Antzokian 6,30etan

**ALISAS**

TABERNA

EZ DAGO  
PINTXORIK

KUTXI • GASTEIZ



ZAPATEGIA - ARTISAUTZA



Herrería, 86 • GASTEIZ

ARABAKO  
ESPERANTO  
ELKARTEA



Zapateria, 29 • Tfnoa: 22 05 70

29

**KONTZERTUA:** Ertantzaren Banda  
Beñat Etxepare Antzokian, 3etan.

30

**KONTZERTUA:** *Concerto*  
Araba kultur Aretoan 8etan.  
**KONTZERTUA:** Ertantzaren Banda  
Beñat Etxepare Antzokian  
8,30etan.

31

**KONTZERTUA:** Ertantzaren Banda  
Beñat Etxepare Antzokian  
8,30etan.



**ESKI ETA MENDIKO ZINEMALDIA.:**

San Viator ikastetxean, martxoaren 8tik 12a arte, egunero arratsaldeko 7etatik 10etara.

**ERAKUSKETAK**

**Ur-biltegi zaharrean,** martxoaren 14a arte. IÑAKI LARRIMBE eta ESTEBAN TORRES. «androideek ardi elektrikoekin egiten dute amets».  
Martxoaren 20tik Apirilaren 15a arte. «Hiria eta Bizitza». Ekologia eta Inguru giroa.

**Olagibel Aretoan** (Enparantza Berria) 11tik 28a arte. JAVIER LAZKANO. Pintura eta eskultura.

**Caruso Kafetegian** (Enrike Eguren 9) ARANTZA COLAS. Argazki-montaia.

**Kultur Etxean** (Florida) 1tik 13a arte Altube unibertsitari elkarteak antolatutako 5. argazki-lehiaketaren lanak ikusgai. 15tik 18a arte, Anitua Eskolako lanen erakusketa.

**Cordon Etxean.** 3tik 15ra. SERAFIN MARTINEZ MEDIAVILLA. Egurrezko tailak.

**CM2-en** (Araba Jauregia, Herreria 24) martxoaren 11tik apirilaren 3a arte. Alberto Gomez «KORTA» erakusketa.

**Arte Rubens Galerian** (Manuel Iradier 9-A). Martxoaren 6tik Apirilaren 3a arte Serny-ren monografikoa.

**Trayecto Galerian** (Ramiro de Maeztu 10). Martxoaren 12tik Apirilaren 30a arte) Erakusketa Kolektiboa.

**Amarika Aretoan,** Jiri Dokoupil-en erakusketa.

**Erakustaretoan** (San Pudenzio 22) hilabete osoan zehar. «Gasteiz, errusiArrek pintatuta» eta «Loreak, bodegoiak, paisaiak eta itsasoa»

**Luis de Ajuria Aretoan** (General Alava 7) 2tik 15a arte. JESUS INFANTE. Aquarela. 17tik 31a arte. ENRIKE SANTAMARIA. Pintura.

**San Prudentzio Aretoan** ( San Prudentzio 30) VAN GOGH Fundazioa.

**EUSKARAZKO MEZAK**

**Larunbatetan:**

6,30etan El Pilar Elizan  
7,30etan Erreparadoretan

**Igandeetan:**

11etan Estibalitzen (ele bietan)  
11.30etan Jesus Langile Elizan  
12etan Erreparadoretan



**LARRUKI**

Larruaren  
Artisautza

KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

Kutxilleria, 26  
Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ



**OPARIAK • KERAMIKA  
ARTISAUTZA**

AVDA GASTEIZ, 7 • Tfnoa: 14 19 27

**“UPELA” MOTRI**

**SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA**

Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)



**Martxoak 9**

**MAHAINGURUA.** GAIA: «Euskaldun fededun»  
Hizlaria: Emiliano Ozaeta.  
Villasuso Jauregian.

**Martxoak 16**

**HITZALDIA:** «Euskara: banatzailea ala integratzailea»  
Hizlari gonbidatuak: Geu Gasteiz, Euskaldun Egunkaria eta Veleia taldea.  
Villasuso Jauregian.

**Martxoak 18**

**BERTSO SAIOA**  
Bertsolariak: Xigor Enbeitia, Oihane Perea, Jon Maia, Iratze Ibarra, Estixu Arozarena, Xabier Silbeira eta Abel Enbeitia  
Villasuso Jauregian.

**Martxoak 19**

**MUSIKA KLASIKOA.** Iruñeako Santa Cecilia Abesbatza, Bergarako Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoa eta Gasteizko Samaniego Abesbatza.  
Santa Maria Elizan (Katedral Zaharra)  
**ANTZERKIA**  
Goaz taldea. Antzezlanak: «Pernando Amezketarra, bizirik hago oraindior»  
Iparralde Gizartetxean, Beñat Etxepare Antzokian.

**Martxoak 20**

**TXIRRINDULARI MARTXA**  
Gasteizen zehar.

**Martxoak 21**

**KORRIKA JAIA**

Herrialde guztietatik etorritako dantzariak, trikitilariak, txistulariak, dultzaineroak albokolariak eta abar  
Gasteizko kaleetan zehar.

**Martxoak 23**

**HITZALDIA:** «Galdutako zibilizaziñoa»  
Hizlaria: Bittor Kapanaga  
Villasuso Jauregian.

**Martxoak 27**

**FOLK JAIALDIA.** Ganbara eta Ortzi taldeak.  
Printzipal Antzokian.

**Martxoak 28**

**HERRI KIROLA** Iparraldekoak Hegoaldekoen aurka  
7 herrialdeetatik etorritako kirolari eta pilotariak (talde bakoitzeko 35 kirolari, 70 orotara)  
Soka-tira, gurdi-jokoa, txinga erute, lasto altzatzea, harri jasotzea, aizkolariak, saku eroatea, trontza, unkudea.

**Martxoak 30**

**POESIA ERREZITALA**  
Gerardo Markuleta  
Luis de Ajuria Aretoan.

**Apirilak 1**

**KORRIKA GASTEIZEN**

**KONTZERTUA ETA TXALAPARTA LEHIAKETA**  
Su eta Gar eta Brankan taldeak  
Adurtzako polikiroldegian

**Apirilak 2**

**KORRIKA TXIKIA**

Hankapaluak, txotxongiloak, kale animazioa eta abar, Enparantza Berria umeentzako merienda.

**Apirilak 3**

**HERRI AFARIA**

Bertsolariak, trikitilariak, Etxamendi eta Larralde Alde Zaharreko ur-biltegian  
Txartelak ohizko lekuetan

**Apirilak 4**

**KORRIKA BUKAERA  
BILBON.**

**korrika**



Berriz hemen sukaldari guztiok sukaldeko txikoa, lapikoak zikintzeko prest. Ea oraingo honetan janari goxoa prestatzen dugun!

SUKALDEKOTIK

### KIPULA ZOPA GAINERRETA

#### Osagaiak

- 3 kipula
- 50 gr. gurin
- 75. gr. gruyere gazta birrindua
- 2 litro salda
- 100 gr. ogi (zati finetan ebakita)
- gatza
- piperrautsa

Oso fin ebakitako kipula lapikoan jariko dugu gurinarekin batera. Kipula xamur eta gorrituta dagoenean salda, gatza eta piperrautsa botako diogu 35 edo 40 minututan egosten utziz. Lapikoa ireki eta ogi errea, gazta birrindua eta gurin urtua erantsi, labean sartu eta gainekaldea gorritzen denean prest izango dugu.

### MAKAILUA DRUNGULU ERARA

#### Osagaiak

- Makalua
- Olio
- Kipula
- Piper berdea
- Baratxuria
- Piper gorria (pikilloak)
- Txorizotarako piperra (mamia)
- Tomate pixka bat

Lehengo eta behin, beti bezala makailua gezatu eta ongi garbitu. Ontzi batean kipula eta piper berdea suezitzen ipiniko ditugu. Bigunduak daudenean baratxuria eta piper gorriak gehitu, nahi bada txorizotarako piperraren mamia ere orain gehitu diezaiokegu uretan errea (ura irakiten dagoenean pixkat eduki hor, eta hotza dagoenean azala kendu, mamia aprobeztatuz). Tomate pixka bat ere gehituko diogu.

Bestalde, makailua labean sartu olio pixka bat eta baratxuriekin 10 minutuz. Atera eta zati txikitan zatituko dugu.

Lehen egindako saltsari makailua gehitu eta pixka bat egiten utzi.

Zerbitzatzeko, ogi erre zati bat ipintzen zaio eta eta baita prexil pixka bat ere.

### TXOKOLATEZKO GOZOKIA

#### Osagaiak

- 5 Arraultzeak
- 150 gr. Txokolatea (kobertura)
- Koinaka kopa erdia
- Ur goilarakada bat
- 30 gr. Gurina

Ontzi batean ura ipiniko dugu eta honen barruan beste ontzi bat, bertan jarriko dugu txokolatea biguntzen. Txokolatearekin batera ura eta koinaka. Bigun dagoenean, sutatik atera gurina gehitzeko eta ondo nahasteko. Nahasketa horri arraultze gorringoak bota, zuringoak elur puntura jaso behar dira. Gutxi falta denean azukre pixkat botako diogu gozotzeko. Dena txokolatearekin nahastu eta katilutan jarri, hozten denean nahi izanez gero hozkailura sar daiteke.

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfoa: 28 81 47  
•GASTEIZ

Cervecería  
Alemana

SALTXITXAK  
KAZOLATXOAK  
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

# DENBORAPASA


	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	G	A	S	T	E	I	Z		A	
2	A	R	O	Z	E	N	A		K	O
3	M	D	T			I	P	E		
4	A	I	E	N	E		A		O	A
5	R		R	O	N			D	R	S
6	R	I	A	Z	A	K	S	U	E	
7	A	A		A	R	A	U	A	K	
8		T	O	K	A	T	A		A	G
9	X	O	A	O		U	N	O		E
10	E	K	I	A			E		T	U

**ZEHARRETARA**

- 1-Gure Hiria.Kanpo;
- 2-Euskal deitura.
- 3-Movement de Defensa de la Terra.(Ald)Saski baloiko jokalaria; Konts.;
- 4-Kexu.Bokale. Bokaleak;
- 5-Konts.Edari ahalkoldun. Kontsonanteak; 6-(Ald) Euskal aire konpania. ;
- 7-Bokale erreplikatua. Erregeak.; 8-Musika entzuteko.Zilarra; 9-Joan den mendeko euskal idazlea. Heldu.Bokale;
- 10-Eguzkia.Bokale. Aditz bukaera.

**GOITIK BEHERA**

- 1- Gasteiz inguruko herriska. Diminutibo atzizkia; 2-Larrean ibiltzen den abere.(Ald) Lotzeko; 3-Bizkaiko treneru.Izan deko;
- 4-Konts. bikoitza. "Horrelakoa" erantzunaren galdera. ;
- 5-Euskañko ezkerria. Txori mota. Konts;
- 6-Industria Erakunde Nazionala.Abere ;
- 7-Parte zaharreko kale izena.(Ald) Traperoak;
- 8-bokale. Herri-izkeran "doa"; 9-Plural atzizkia. Denduna; 10-gizon izena.Gu.




Noiz ordainduko du?  
(Epe barruan)

*Epe barruan*

**SOLUZIOA**

1	G	A	S	T	E	I	Z		A	
2	A	R	O	Z	E	N	A		K	O
3	M	D	T			I	P	E		
4	A	I	E	N	E		A		O	A
5	R		R	O	N			D	R	S
6	R	I	A	Z	A	K	S	U	E	
7	A	A		A	R	A	U	A	K	
8		T	O	K	A	T	A		A	G
9	X	O	A	O		U	N	O		E
10	E	K	I	A			E		T	U

# GURE HIZKUNTZAREN NONDIK NORAKOA EZAGUTZEKO BIDERIK ERRAZENA!



**Gaztelera eta frantsesezko bertsiok ere badaude**

**Liburu dendetan salgai**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA  
Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA DEL GOBIERNO  
Secretaría General de Política Lingüística

# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 77
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	

